

A TRIODOS BANKEN AKZIOENTARAKO GORDAILUEN ZIURTAGIRIEN (AGZ) EROSKETA / TRANSMISIOA AGINDUA

EZ NAIZ Triodos Banken AGZen titularra *

Triodos Banken AGZen TITULARRA NAIZ

Agintzen dut EROSTEA TRANSMITITU

Akzioetarako gordailuen ziurtagiriak _____, _____ €
 Ziurtapen unitateko prezioa _____, _____ €
 AGZen kopurua _____

Transakzio bakoitzeko, Triodos Bankeko kontu korrante elkartuan % 0,5eko komisioa aplikatuko da, gutxienez 5 eurokoa, gordailuen ziurtagiriaren salmenta / erosketara bakoitzeko. Transakzio kostu horiek transakzioaren guztizko prezioaren gainean kalkulatu dira, hau da, eragiketa hau eginda: gordailuen ziurtagiriaren prezioa bider erositako edo saldutako gordailuen ziurtagiriaren kopurua.

Transakzio honengatik, hau da zure komisioa: _____ € Triodos Bank bete beharrekoa
 Agindua, guztira: _____ €

Aukera ezazu zure AGZak ordaintzeko gehien komeni zaizun modua:

AGZ berriak doan harpidetuta, zerga atxikipenik gabe. Eskudirutan, elkartutako kontuan dirua sartuta, zerga atxikipenarekin.

Herrialde kodea K.D. Erakundea Bulegoa K.D. Kontu zenbakia

Akzioetarako gordailuen zure ziurtagiriari elkartutako kontua **E,S** _____ **1,4,9,1,0,0,0,1** _____

*Akzioetarako gordailuen ziurtagiriari erosteko, ezinbestekoa da zu alde aurretik Triodos Bankeko bezeroa izatea. Bezeroa ez bazara, kontu korrante bat ireki beharko duzu. Horri dagokionez, aipatzekoa da AGZen prezioa edonoiz alda daitekeela. AGZen prezioan aldatetarik gertatuz gero, zure erosketara eskabidea bertan behera utziko da. Agindua ez da gauzatuko harik eta kontuan aski diru egiaz eskuragarri gordailututa dagoen arte. Argibide gehiago dituzu www.triodos.es webgunean edo 902 360 940 / 916 404 684 telefonoetan.

AGZ bakoitzeko prezioa aldatuz joango da Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriaren jaulkipenerako liburuxka ofizialean deskribatzen den balioztapenarekin bat etorriz. Liburuxka eskuragarri dago www.triodos.es webgunean. Zure AGZen transmisioa prezioa, Triodos Bankeko zure kontu elkartuaren bidez kobratzen edo ordaintzen da. Inprimaki honetan adierazten dituzun kontu elkartua eta ordainketa modua eragingarriki izango dira zure titulartasuneko ziurtagiri guztietarako, berdin dio noiz transmisioa zenituen. AGZk titular batek baizik ezin ditu erosi; ez da onartzen titularkiderik, baimendurik edo jabetza indibisorik. Eroste edo salmenta agindua egikaritzeko da dagozkion AGZ kopuru osoarekin eta zatikiarekin. Zatikia kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: erostera bideratutako kopurua zati agindua egikaritzeko datan AGZetarako indarrean den prezioa. Zenbateko horren gainean, dagokion transakzio komisioa kargatuko zaizu kontu korrante elkartuan.

B TITULARRAREN NAHITAEZKO DATUAK

Izena _____ 1. abizena _____ 2.a _____ Jauna Andrea

Lanbidea _____ E. zibila _____ Jaioteguna _____ NAN / AIZ _____

Ohiko bizilekua _____ Herria _____ P.K. _____

Probintzia _____ Tel. partikularra _____ Mugikorra _____ E-mail _____

Kapital zuritzearen prebentzioari eta terrorismoaren finantzaketari buruzko gaietan indarrean den legediari jarraituz, ondorengo eremuak nahitaez bete beharrekoak dira:

Norbere konturako langilea besteren konturakoa Autonomo egindako data _____ Kargua _____

Jarduera arloa Enpresa Urteko diru-sarrera gordinak _____

Gogoan izan: zure aginduen egoera kontsulta dezakezu, hona deituta: 91 640 46 84.

Komunikazio hau erregistratu egingo du Triodos Bankek, indarrean den legediari jarraituz, 5 urtez; eta eskuragarri izango duzu aldi horretan, eskatzen baduzu.

C HEMEN SINA EZAZU

Triodos Bank NV S.E.



Mikel Garcia-Prieto
Director General

Data 20 _____-(e)ko _____-ren _____ Titularraren sinadura _____

Ordua: __ : __

! **GORDAILUEN ZIURTAGIRI** en titular ez bazara, edo aurreko hiru urtean GAI emaitza duen egokitasun test bat eta aurreko urtean baiezko emaitza izan duen helburu merkatuaren test bat egin ez badituzu, egoki izapidetzearen beharrezkoa da zuk webgunean eskuragarri dauden testak betetzea.

Irakur itzazu arretaz aginduak egikaritzeko kontratuari buruzko adostasun eta onartze klausula eta inprimaki honen atzean ageri diren erlazionatutako gainerako dokumentuak. Eskaera hau sinatzeak eskaera onartzea dakar.

AGINDUAK EGIKARITZEKO KONTRATUARI BURUZKO ADOSTASUN ETA ONARTZE KLAUSULA

Dokumentu honen bitartez, sinatzaileak/sinatzaileek, norberaren izenean, ala ordezkatzeko duen/duten entitatearen izenean ala haien legezko ordezkari edo ahaldu gisa, ondorengo adierazten du/dute: (i) garai jakin dituela/dituztela eta onartzen dituela/dituztela akzioetarako gordailuen ziurtagiriak jaulkitzearen liburuxkako baldintzak. Liburuxka hori Europar Erkidegoko EC/809/2004 Zuzentzaruari jarraituz argitaratu da, eta Finantza Merkatuen Herbeheretako Agintaritzan (AFM) erregistratu. Liburuxkaren laburpena, zeinaren laburketa dokumentu honen atzealdean jasota dagoen, argitaratuta dago Balioen Merkaturako Espainiako Batzordearen (CNMV) webgunean (www.cnmv.es), eta eskuragarri dago www.triodos.es webgunearen bidez; (ii) onartzen dute jaso dutela aski informazio Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriak harpidetzea/eskualdatzea agintzeko, eta bereziki ezagutzen eta onartzen dituela/dituztela CNMVren webgunean argitaratutako liburuxkan jasotako «Restricciones de venta y de transferencia» eta «Factores de Riesgo» atalak, bai eta «Análisis de riesgo de CDA» eta «Zerga informazio garrantzitsua, Triodos Banken akzioen gordailu ziurtagiriaren titularentzat» dokumentuaren edukia ere; (iii) Interneteko sarbide erregularra dute, eta badute posta elektronikoko helbide bat, inprimaki honetan jasoa; (iv) onartzen dute, produktua eta Triodos Banken informazioa eskuratzeko bidez, www.triodos.es webgunea; (v) adierazten dute ezagutzen eta onartzen dituztela dokumentu hauek: «Triodos Bank NV S.E. konpainian aplikatutako diren politikak adierazpena» (zehazki, atal hauek: Triodos Banken aginduak egikaritzeko politikari eta antolakuntzako, informazio pribilegiatua tratatzeko eta interes gatazka kudeatzeko politikari buruzkoak), eta «Triodos Bank NVren akzioetarako gordailuen ziurtagiriak erosteko/saltzeko aginduak hartu, transmititu eta egikaritzeko zerbitzuaren baldintza orokorrak», eta badirela erregistroak, egikaritze aginduak, egindako eragiketak eta bezeroekin izenpetutako kontratuak jasota dituztenak. Orobat, ondorengo hau adierazten du/dute: (1) Triodos Banki emandako beren datu pertsonalak egiazkoak eta zehatzak dira, (2) adinduna/adindunak da/dira, (3) ezagutzen, onartzen eta berresten du bere datu pertsonalak tratatzeko emandako adostasun informatua, datu pertsonalak babesteko klausularekin bat etorrira; klausula hori pertsona fisiko egotziaren kontratu globalean jasota dago, edota, bestela, pertsona juridikoentzako kontratu globalean, aurreko aplikagarri ez bazaio, era berean, adierazi esandako klausulen eta Triodos Bankeko Pribatutasun-adierazpeni buruzko eguneratzeak, (4) Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriak presentziazkoa ez den bide batez (bide elektronikoz edo telefonoz) kontratatu gero, adierazten duzu badakizula behar besteko aurretiaz eskura izan dezula inbertsio produktu horri buruzko informazioa, eskuragarri baitago euskarri iraukorrean www.triodos.es webgunean euskarri iraukorrean eskuragarri dagoen inbertsio produktu horri buruzko informazioa alde aurretik nahikoa denborarekin ezagutu ahal izan duela, bai eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren bitartez gatazka konpontzeko sistemari, eta ordinaraz dakizkiokeen komisio eta gastuen existentziari (horiek ere beti eskuragarri daude, 902 360 940 nahiz 916 404 684 telefonoen edo www.triodos.es webgunearen bidez idatzizko informazio eskatuz) buruzko informazioa ere.

LAN DATUAK EGIAZTATZEA

Titularrak/titularrak jaso du/dute Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsalarengandik informazio hau: kapitalak zuzitzea prebenitzeari buruz indarrean den legediari jarraituz, banketxeek beren bezeroengandik eskuratu behar dute bezero horien ekonomia jarduerari buruzko informazioa, eta informazio hori egiaztatzen. Emandako informazioa egiaztatzeko helburu bakar horrekin, berariazko adostasuna ematen diot/diogu Triodos Bank NV S.E. konpainiari, nire/gure izenean Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari informazio hori eskatu ahal izan dakan. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari lortutako datuak, aurrez adierazitako kudeaketarako beste ezertarako ez dira erabiliko. Finantza erakundeak edo erakunde horretan zerbitzu egiten duten langileek betebeharrak hori betetzen ez badute, 1999ko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteko Legea) ezarritako jarduketak guztiak egikaritu dira.

ZER GERTATUKO DA TRANSMISIOA/SALTZEKO INPRIMAKI HAU BIDALI ETA GERO?

Inprimaki hau sinaturik eta eskatutako dokumentazioa jasotzen dugun bezain laster, Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriak transmisioa/saltzeko agindua izapidetuko dugu. GORDAILUEN ZIURTAGIRIen titular ez bazara, edo aurreko hiru urtean GAI emaitza duen egokitasun test bat eta aurreko urtean baiezko emaitza izan duen helburu merkatuaren test bat egin ez badituzu, egoki izapidetzearen beharrezkoa da zuk webgunean eskuragarri dauden testak betetzea. Test hori eskuragarri duzu, gaztelaniaz, gure webgunean (<http://www.triodos.es/media/40764/test-conveniencia.pdf>) eta gure bulegoetako edozeinetan. Egindako ebaluazioaren emaitza GAI baldin bada, agindutako eragiketa egikaritu da, eta Triodos Bank akzioetarako gordailuen ziurtagiriaren TRANSMISIOA/SALMENTAREN BAIEZTAPENAREN komunikazioa bidaliko dizugu, hala egokituz gero Triodos Banken aplikatutakoak diren MIFID politikak dokumentuarekin batera. Dokumentu hori eskuragarri duzu www.triodos.es webgunean. Kontsultaren bat egin nahi baduzu edo argibideak nahi badituzu, zure zerbitzura duzu Triodos Bankeko profesionalen taldea. Deitu 902 360 940 / 916 404 684 telefonoetara, eta pertsonalki erantzun dizugu.

Argibide gehiago aurkituko duzu akzioetarako gordailuen ziurtagiriak kontratatu aurretiko informazioaren eta ohiko galderen dokumentuan, www.triodos.es webgunean.

JAILKITZAILA, GORDAILUZAINA ETA MERKATURATZAILA

Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriak (AGZ) SAAT Fundazioa (Foundation of Stichting Administratiekantoor Aandelen Triodos Bank, Zeist hirian erregistratua —Nieuweroodweg 1,3704 EC, Zeist, Herbehereak—, Merkataritza Erregistroan zenbaki hau izanik: 41179632) jaulkitzen ditu. Triodos Bank NV da Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriaren erakunde kudeatzailea eta gordailuzaina. Triodos Bank NV, Espainiako Sukurtsalak erakunde merkaturatzailetzat dihardu. AGZen jaulkitzailea Herbehereetako erakunde bat denez, inbertsio produktu

Honako hau Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriaren jaulkipenerako liburuxka ofizialaren laburketa bat da. Liburuxka hori, 2018ko ekainaren 14a, dohainik lor daiteke, Triodos Bank NV, S.E. konpainiarekin harremanetan jarrita, bankuaren www.triodos.es webgunearen bitartez. Haren gaztelaniazko laburpena Espainiako Balioen Merkaturako Batzordearen webgunean (www.cnmv.es) argitaratuta dago.

Inprimaki hau sinatzeak esan nahi du onartzen direla jaulkitze baldintzak, www.triodos.es webgunean eskuragarri dagoen Triodos Banken akzioetarako gordailuen ziurtagiriaren jaulkipen liburuxkan deskribatuta dauden eran.

Etorkizuneko inbertsioegileak arretaz aztertu behar du «Arrisku faktoreak» kapitulua, Espainiako Balioen Merkaturako Batzordean argitaratutako liburuxkan. Aipatutako arriskuak diren gauzatzen baldin bada, gerta daitezke gordailuen ziurtagiriaren balioa txikiagotzea, eta inbertsioegileak behar bada inbertsioaren zati bat edo inbertsio osoa galduko du. Produktu honen ezaugarriak direla kausa, harpidetutako produktuari buruzko informazio guztia kontsultatu beharko du bere inbertsio profilari gehien egokitzen zaion erabakia hartzeko.

TRIODOS BANKEN AKZIOAK ADMINISTRATZEKO FUNDAZIOA (SAAT)

(Herbehereetan fundaziozatz ezarria, korporazio egoitza Zeist hirian du, Herbehereetan)

Akzio arruntetarako gordailuen 4.000.000raino ziurtagiri berriren eskaintza, akzio bakoitza 50 euroren balio nominalakoa, TRIODOS BANK NV bankuan (Herbehereetan sozietate anonimizatuz ezarria, sozietate egoitza Zeist hirian du, Herbehereetan)

Triodos Bank NV bankuak (bankua), Triodos Banken Akzioak Administrazio Fundazioaren (jaulkitzailea) bitartez akzioetarako gordailuen 4.000.000raino ziurtagiri (gordailuen ziurtagiriak) eskaintzen ditu modu nominatiboan, bankuaren kapitallean bakoitza 50 euroren balio nominala duten modu nominatiboko akzio arruntei (akzioak) dagokienez (eskaintza). Eskaintza publikoa Alemanian, Belgikan, Erresuma Batuan, Espainian eta Herbehereetan, aurkeztu da. Dokumentu hau (liburuxka) 2003/71/EC Zuzentzarauko (Liburuxken Zuzentzaraua) 5.3 artikuluko helburuetarako onartu da, eta Finantza Gainbegiratzaren Legeko (Financial Supervision Act, FSA) 5.9 artikuluari eta indarrean den araudiari jarraituz prestatu da. Liburuxka hau Finantza Merkatuen Herbeheretako Agintaritzak (Autoriteit Financiële Markten, AFM) onartu eta arxivatu du. Triodos Bank NV bankuak AFMri eskatu dio onarpen ziurtagiri bat eta dokumentu honen kopia bat eman diezaiela bankuak sukurtsalak dituen herrialdeetako (Alemania, Belgika, Erresuma Batua eta Espainia) bakoitzeko agintaritzak eskumendunei.

Gordailuen ziurtagiriak ez dira kotizatuzkoak onartu, ez eta onartuko ere, ezin balio burtsutan. Jaulkitzaileak, hala ere, merkatu bat mantenduko du gordailuen ziurtagiriarentzako. Legez gordailuen ziurtagiriak eskaintzea eta saltzea baimendua duten pertsonen eta baimendua duten jurisdikzioetan baizik ez dira eskaintzen gordailuen ziurtagiriak. Beste jurisdikzio batzuetan akzioen eskaintzak, salmentak eta transferentziak eta liburuxka honen banaketak dituzten murrizketen deskribapena nahi izanez gero, ikus «Salmentaren eta transferentziaren murrizketak» atala.

Gordailuen ziurtagiriak eta azpian dauzten akzioak etengabe jaulkitu dira, eskaintzaren unean gordailuen ziurtagiriaren titularrak (gordailuen ziurtagiriaren titularrak) prebentzio eskubideak salbetsuta. Gordailuen ziurtagiriaren kopuru izateduna proportzionalki banatuko da jaulkipen berrietan. Gordailuen ziurtagiriak jaulkitzearen prezioa (jaulkipen prezioa) egunero zehaztuko du bankuak, honela: bankuak kalkulatu berriena duen likidazio balioa, zati jaulkitako gordailuen ziurtagiriaren kopurua (gordailuen ziurtagiriaren likidazio balioa), eta jakinda bankuko Batzorde Ekekutiboak lortutako emaitza arruntak. Azken likidazio balioa kalkulatu eta gero aurkezten diren emaitza arruntak finantza administrazioan onarriturik zehaztuko dira. Gordailuen ziurtagiriak jaulkitzearen prezioa euro osoetara biribilduko da; 0,5 euroren dezimalak eta hortik gorakoak gorantz biribilduko dira. Aplikagarri den jaulkipen prezioa egunero eska dakioko bankuari, eta bere toki webgunean ere argitaratzen da. Alemanian www.triodos.de, Belgikan www.triodos.be, Erresuma Batuan www.triodos.co.uk, Espainian www.triodos.es eta Herbehereetan www.triodos.nl.

Transakzioko % 0,5eko kargu bat kobratuko da, gutxienez 5 euro, gordailuen ziurtagiriaren salerosketa bakoitzeko. Transakzio kostu horiek transakzioaren prezio osoaren gainean kalkulatu dira, hau da, gordailuen ziurtagiriaren prezioa bider gordailuen ziurtagiriaren kopurua. Aldi batzuetan, behar bada deskontuak aplikatu dira eroste prezioaren gainean edo transakzio kostuen gainean, inbertsioegile batzuentzat. Deskontu horiek bankuaren tokian tokiko webgunean argitaratuko dira.

Esleipenak Batzorde Ekekutiboak egingo ditu, jaulkitzailearen izenean. Esleitze politikak kontuan hartuko du gordailuen ziurtagiriaren titulartasunen diferentzial orekatu baten garrantzia. Gainera, gordailuen ziurtagiriaren ezin titularrak zuzenean edo zeharka dituen gordailuen ziurtagiriaren kopurua mugatuta egongo da zirkulazioan diren gordailuen ziurtagiriaren kopuru osoaren % 10era gehienez ere. Batzorde Ekekutiboak baimena du jaulkitzailearen izenean gordailuen ziurtagiriaren gainera harpidetuz ukatzeko edo kopuru mugatu bat esleitzeko. Gainera, Batzorde Ekekutiboak noiznahi erabaki dezake gordailuen ziurtagiriaren jaulkipena mugatzea, etetea edo baztertea. Jaulkipena etetearen edozein erabaki bankuaren tokian tokiko webgunean iragarriko da.

Bankuak kudeatzen duen gordailuen ziurtagiriaren titularrak erregistroan (erregistroa) erregistratuta daude eta erregistratuko dira gordailuen ziurtagiriak. Esleitutakoan, erregistroan erregistratu izanaren frogak jasoko du harpidetutakoak.

Jaulkipen honetan sartutako gordailuen ziurtagiriari eratorritako eskubideak indarrean izango dira bankuari jaulkipen prezioa ordaindu zaion eta gordailuen ziurtagiriak erregistroan erregistratuz gordailuen ziurtagiriaren titularrak entregatu zaizkion egunetik. Liburuxka 2003/71/EC Zuzentzarauko («Jaulkipen Liburuxken Zuzentzaraua», 2010/73/EC Zuzentzarauk aldatua) 5.3 artikuluari jarraituz eratu da, eta Finantza Gainbegiratzaren Legeko (Financial Supervision Act, FSA) 5.9 artikuluari eta harengandik eratorritako arabei jarraituz prestatu da. Liburuxka hau Finantza Merkatuen Herbeheretako Agintaritzari (Autoriteit Financiële Markten, AFM) aurkeztu zaio eta agintaritzak horrek onartu du.

Liburuxka honen data: 2018ko ekainaren 14a.